

SESTAO. Tratu txarrak jasotako emakumeei ostatu zerbitzua emongo deutse Udalak

Sestaoko Udalak martxan ipini dau Ezkerraldeko harrera etxe bakarria

Behar dabenei laguntza juridikoa, psikologikoa eta ekonomikoa eskainiko jake egonaldian Neba-Neba alkartearen bidez

Irune Berro

Sestaoko Udalak tratu txarrak jaso dituen emakumeendako harrera etxea egokitu dau. Ezkerraldeko lehenengoa, hain zuzen. Kontu horreek Bizkaiko diputazioaren eskuduntza bada be, Udalak aspalditik mota honetako etxeak sortzeko eukan ideiaz aurrera egitea erabagi dau. Gizarte Ekintza zinegotzi Carmen Basarrateren berbetan, Udaleko alderdi guztiek osotzen daben Gizarte Ongizateko Batzorde informatiboak onartu eban asmoa, *El Correo* egunkariak ha udalbatzarrean erabagi zala argitaratu arren. Ganera, aitatutako kazeta horrek dinoanez, harrera etxe horrek etenbako polizi zaintza eukiko leuke emakumeetako batetik hala behar izan ezkerro. Holantxe, Sestaoko Udaleko Gizarte Zerbitzuak, Neba-Neba alkarteagaz batera, hiru emaku-

me eta euren seme-alabendako tokia eukiko dauen pisua antolatzeari ekin eutsien. Neba-Neba alkarteak arazoak dituen emakumeei laguntzen deutse. Udaletxeak lagatako lokala daukie, eta bertan, joaten diran emakumeen arazo ekonomiko eta judizialak konpontzen ahalgintzen dira. Udaletxearen diru laguntzea jasoten dabe horretarako. Basarratek *Bizkaia*-ri adierazo deusan lez, «Neba-Neba alkarteak euren jardueira osotu ahal izateko harrera etxe bat egin gura eben, eta guri be ideia ona iruditu jakun». «Hasieran eskualde osorako etxea izan eiten pentsau genduan, baina ez genduan gura Diputazioaren eskuduntzetan larregi sartu, eta Sestaorako bakarrik izatea erabagi genduan» ganeratu dau Basarratek.

Etxe horrek eskaintzen dituan zerbitzuetara sarbidea euki gura izan ezkerro, baldintza

bi eskatzen jakez emakumeoi: Ertzaintzan edo Udaltzaingoa salaketea ipinita eukitea eta gitxienez urtebetez Sestaon errol-datuta egotea.

Basarratek esan deuskunez, «pisuko zerbitzua eskatzen daben emakumeek, normalean, ez ditue behin bakarrik erasoak sufridu, gehiagotan baino. Halandaze, lehendik daukie hartu-emona gizarte zerbitzuekin». Horregaitik, pisurako sarbidea modu arinean egiteko asmoa daukie Udalekoek. «Salaketea ipini eta udaltzainak berehala behar dituen zerbitzu guztiak eskainiko deusiez, eta etxera sartzeko giltza be emongo deusie» dino Basarratek. Ganera, seme-alaben edadean ez dabe mugarik ipini, gaur egun langabezia dala-eta gazte asko eta asko berandura arte etxean bizi dirala ulertzen dabelako.

Basarratek dinoanez, egoerak hala eskatzen dauenean, egongelan ohe bihurtu leiteken sofa-ohea dago. Halandabe, pisua beteta ez egotea itxaroten dabe.

Bestalde, martxan ipini daben etxe hori egonaldi laburre-

CARMEN BASARRATE

Gizarte Ekintza zinegotzia

«Pisuko zerbitzua eskatzen daben emakumeak, normalean, ez ditue behin bakarrik erasoak sufridu»

tarako baino ez da. Emakumeak bertan egoten diran bitartean, dana dala, bakotzak daukan egoerari erantzuna emongo jake. Beharra topetan lagundu eta aurrerantzean izango dauen etxeko alokairua pagetako diru laguntzea emon, besteak beste. Halan eta guzti be, eperik luzee-na daukan pisua dala Sestaokoa gogoratu arazo deutso *Bizkaia*-ri Basarratek. Izan be, sei hileko egonaldia harrera etxe gitxi daukie.

Basarratek nabarmendu dauenez, emakume asko harre-ra etxean egon ostean, etxera bueltetan dira. Izan be, kasu guztiak ez dira muturrekoak, eta askok denporeagaz etxean euki dituen arazoak konpontzen ditue.

URIGINTZEA. Etxebizitza barriak Errekaldeko mendebaldean eregiko ditue, antxinako harrobitik gertu

Udalak babes ofizialeko 70 etxebizitza eregiko ditu 100 familiarendako Errekalde auzoan



Bilbo bizibarritzeko uri antolamentuko planaren barruan dagoen apostu haundia da etxebizitzena.

Erredakzioa

Bilboko Udala eta Udal Etxebizitzak uriko Errekalde auzoan arkitektonikoki zaharkituta dagoen zonaldeko 100 familia har-

tzeko babes ofizialeko 70 etxebizitza eregiteko araudia gertetan dabilz, atzo Europa Press agentziak jakinarazo ebanez. Bilboko alkate Iñaki Azkunak adierazo eban proiektu hori uria

bizibarritzeko 1994an onartu eben uri antolamentuko planaren barruan dagoen apostu haundia dala.

Holan, eragindako eraikinen expropiazio espedienteak bi-

deratzen dagoz, eta bizilagunak beste etxe batzuetara bizitzen joateko tramitazioa egiten. Eragindako eraikinak behera botako ditue tasau ostean, behin etxebizitza barriak eginda bizilagunek ordaindu behar daben zenbatekoa zehazteko.

Zonalde guztirako urbanizazio proiektua osotzen be badabilz, bagilean aurkezteko.

Etxebizitza barriak auzoko mendebaldean eregiko ditue, Elejabarri eskolearen eta antxinako harrobiaren artean.

Kalidade eskaseko eraikinak dagozan auzoko zonalde honetarako etxebizitzaren eraikin sozial eta barritzailea lortzeko asmoz, Udal Etxebizitzak-ek proiektuen lehiaketea gertau eban. 15.000 euroko saria Patxi Corcuera, Miguel Gutierrez, J. Ramiro Higuera eta Ruben de Miguelek irabazi eben aurkeztutako «Plataforma» proiektuagaz. Sailkapeneko bigarren eta hirugarren proposamenak *Erwin & Friends* eta *Rekaldeberri* izan ziran hurrenez hurren. 12.000 eta 9.000 euroko sariak jaso zituen.

LAGURAEAN

BILBO

Karmelo ikastolakoek bidea moztu eben atzo protesta modura

Ikastola barria Behartsuen Senidetxoaren zaharren egoitzaren alboko zelaian egin edo ez Udalagaz arazoak daukiez Karmeloko irakasle eta gurasoek. Udalaren erantzunik jaso ezean protestetan kalera atarako dirala agertu eben. Esan eta egin. Santutxu eta Karmelo kaleen arteko bidekurutzea moztu eben ordu laurdenez arrastiko bostetan.

Partzuergoa ikertuko dauen batzordeagaz lasai dago Azkuna

Partzuergoaren ganean sortutako ika-mikak ez ditu Udalak konponduko. Horixe bera adierazo eban atzo Bilboko alkate Iñaki Azkunak. Ganera, alkarteak ikertzeko osotutako batzordeagaz be trankil dagoela agertu eban. Azkunak esan ebanez, «Partzuergoak berak konpondu behar dau arazoa. Herri kontuen euskal epaitegiagaz kontuak argitu behar ditu; izan be, ez da dirurik falta»

ABELTZAINZEA

EHNEk Gorbeiaiko otsoen gaian Aldundiaren pasibidadea salatu dau

EHNE nekazal sindikatuak Bizkaiko Nekazaritza diputatu Patxi Sierra-Sesumagaren jarrera pasiboa eta borondate bakoa salatu dau. Izan be, otoak agertu ziranetik hamar animaliatik gora agertu dira hilda. Besteak beste, atzo Urduñan otsoek hil zituen bi ardiak. Aitatutako sindikatuak otsoek animalia gehiago hil ez daiezan neurriak hartzeko eskatu deusie Bizkaiko Diputazioari. Besteak beste, zainketea eta mastin txakurrak gehitzea.

SANTURTZI

EBk euskerearen normalizaziorako taldea batzea eskatu dau

EBko udal taldeak, alderdi danen artean euskerearen hedapenagaz zerikusia daukien gaiak eztabaidatu daiezan, normalizazio linguistikoaz arduratzen dan informazio batzordea batzea eskatu dau. Raquel Modubar zinegotziak (EB) batzordeko presindeteari, Felix Velasco (PP), galdetu gura deutso, ia eskoletan euskerea sustatzeko helburuagaz diru laguntzea eskatu deusan Bizkaiko Diputazioari.